

ALL IS OLD PAPER

Gure zerbitzuak baserrietan dauden egur soberakinak biltzean eta hauek paper fabrikeei saltzean datza.

- Nola egingo genuke hau?

Hasteko, enpresaren langile bat baserriz baserriz joango litzateke auzokideei zerbitzua eskainiz eta horrek dakartzan onurak proposatuz. Nekazariari oso kostu txikia kobratuko genieke bilketaren truke; horrela gure enpresak diru kopuru jakin bat lortuko luke (bildutakoa saltzen) eta bezeroek haren hondakinekin bukatuko lukete inongo esfortzurik gabe. Gaur egun, hondakinekin bukatzeko modu errazean, hauek erretzea da, nahiz eta hori debekatuta egon. Beraz, gure zerbitzua onartzekotan, hondakinekin bukatuko lukete modu legal eta ekologiko batean.

Ondoren, esan dugun bezala, bildutako egur eta adar guztiak paper fabrikei salduko genizkioke haiek guk saldutako hondakinak erabiltzeko eta horrela, hainbeste zuhaitz moztu behar ez izateko.

Laburbilduz, gure bezeroak paper fabrikak eta baserrietako familiak izango lirateke eta gu biltzaile-bitartekariak (familien eta paper enpresen artekoa).

- Zeintzuk dira gure helburuak?
 1. Dirua lortzea.
 2. Hainbeste zuhaitz ez moztea papera sortzeko; hau da, natura zaintzea.
 3. Baserritarrek hondakinak ez erretzea eta beraz, erretzeak dakartzan arriskuak ekiditzea.
 4. Gutxiago kontaminatzea.
 5. Baserritarren bizitza erraztea.

- Gure proiektuko bezero posibleak hurbiltasun aldetik hauek dira:

1. J.L Castañares (Bilbao)
2. Fabri papel SA (Zamudio)
3. Smurfit Kappa Nervion S.A (Lurreta, Durango)

Gainera, J.L Castañaresek interesa dauka birziklatzean, beraz, enpresa honek gure proiektua aurrera eraman ahalko luke.